

Ebazpena: R54/2022

Espedientea: 21/2014

Gasteizen, 2022ko irailaren 13an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatua– honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean BFA), IFESLren zerga-egoitza 2010eko abenduaren 22tik aurrera aldatzearen inguruan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean (aurrerantzean, ZAEA) aurkezturiko gatazkari buruzkoa. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 21/2014 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- IFESL 2002ko ekainaren 6an eratu zen, eta haren helburu soziala ondasun higiezinak eskuratu, ustiatu eta besterentzea zen. 2011ko urtarrilaren 10etik, alta emanda dago Bizkaiko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, 83311 epigrafean (*lurren sustapena*).

2.- 2010eko abenduaren 22ko Batzar Nagusi Unibertsal eta Ezohikoan, IFESLren egoitza soziala aldatzea erabaki zen, hain zuzen Madrilgo M kaletik Bilboko C kalera aldatzea. Aldaketa hori eskritura publikoan jaso zen 2011ko urtarrilaren 5ean, 2011ko otsailaren 25ean inskribatu zen Merkataritza

Erregistroan eta 2011ko martxoaren 14an argitaratu. Hala ere, IFESLk BFari jakinarazi zion helbide zuzena Bilboko C kalea zela.

Hala eta guztiz, egiaztatu da helbide horretan WMB negozio-zentroa ari dela lanean, eta haren titularra BAL andrea dela. Egiaztatu da, halaber, hark IFESLrekin kontratatuta daukala WMB zentroak posta jaso eta zaintzeko zerbitzuak ematea eta sozietatearen zerga-helbideratzerako baimena, eta ez daukala kontrataturik Administrazio Kontseiluaren bilerak egiteko aretoak alokatzeko zerbitzua.

Geroago, egoitza soziala berriro aldatu zen, Bilboko Z kalera aldatu baitzen. Aldaketa hori 2013ko ekainaren 5ean inskribatu zen Merkataritza Erregistroan, eta 2013ko ekainaren 18an argitaratu zen.

3.- IFESL bi administratzaile solidariok administratu dute 2003ko otsailaren 20tik 2012ko maiatzaren 11ra bitartean: MSCV andrea, helbidea Madrilgo BM kalean duena; eta RFQ jauna, aurrekoaren helbide berekoa. Eta 2012ko maiatzaren 11tik aurrera, administratzaile batek, RFQ jaunak, 2012ko maiatzaren 11ko Ezohiko Batzar Orokor Unibertsalak 2012ko maiatzaren 12ko eskrituran jasotako akordioaren arabera.

4.- 2013ko ekainaren 6an, BFAk IFESLren helbidea Majadahondara (Madril) aldatzeko proposamena jakinarazi zion ZAEari. Aldaketak 2010eko abenduaren 22tik aurrera izango zituen ondorioak.

5.- Bi hilabete igaro ondoren, Ekonomia Itunarekin eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduarekin bat etorrira, indarrean zeuden *ratione temporis* idazketetan, ZAEak ez zion aipatu proposamenari erantzun; beraz, BFAk 2014ko martxoaren 25ean aurkeztu zuen gatazka Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean.

6- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAk alegazioak egin eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAk izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin da BFAk proposatutako egoitza-aldaketa.

7.- IFESL eta II&FSL sozietateak EISL sozietateak xurgatu ditu, 2014ko ekainaren 12ko erregistro-inskripzioan jasota dagoen bezala (2014ko ekainaren 27an argitaratu zen).

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikuluko horrek *zergadunen egoitza dela eta sor litezkeen desadostasunak ebazteko* eginkizuna esleitzen dio.

2.- Amore ematea

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera aurkeztu ez denez, ZAEAk amore emateak —BFAk egindako helbide-aldaketaren proposamena onartuta— bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea prozeduraren xedea gerora desagertu delako, ZAEAk amore eman baitu BFAk IFESLren helbidea aldatzeko egindako proposamenean; 2010eko abenduaren 22tik aurrera izango ditu ondorioak.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta IFESLri jakinaraztea.